

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

- **Zein dira behar dituzuen elementu garrantzitsuenak zuen proiektuak funtziona dezan?**

Kliniken laguntza eta laborategi desberdinen laguntza behar ditugu gure aparatua sortzeko.

Gure proiektua funtzionatzeko baliabide batzuk behar ditugu, baliabide fisikoetan, instalazio bat behar dugu gure laborategia sortu ahal izateko, makinak ere behar ditugu ferulak egiteko, sortu behar dugu sistema-informatiko bat han guztia izateko...

- **Enpresa baten funtsezko baliabideak honela banatzen dira:**

- Baliabide fisikoak: Gure proiektua fabrikatzeko instalazioak, makinak, sistema-informatikoa eta salmentarako puntuak behar ditugu. Horretarako, interneten bilatu dugu eta gure laborategia kokatzeko leku batzuk aurkitu ditugu. Hauek dira webguneak: Naves en venta Vitoria - Gasteiz - Indomio Laboratorio; Local en Vitoria-Gasteiz, Álava — idealista
- Baliabide intelektualak: Gure kabuz sortutako marka egingo dugu, ZION deitutakoa.
- Giza baliabideak: Sormena eta ezagutza behar dugu ferula berritzeko eta hobetzeko.
- Finantza-baliabideak: Publizitatearekin lortzen dugun dirua nahikoa ez bada, kreditu bat edo esku dirua eskatu egingo dugu materialak erosi eta negozioa zabaltzeko. Horretarako, hainbat laguntza ditugu eskura, eta horietara jo dezakegu. Aukerak hauek dira:

1. Gasteizko Udalaren bekak eta laguntzak

- **Ekiteko bekak**
Udalak 2.500 € arteko laguntzak eskaintzen ditu enpresa-proiektuak garatzeko fasean, Gasteizen erroldatuta bazaude eta baldintzak betetzen badituzu.
- **Enpresak sortu eta sendotzeko laguntzak**
Inbertsioen %40 arteko finantzaketa eskaintzen dute, urteko gehieneko 8.000 € inguru, honako gastu hauetarako: enpresaren eraketa, notarioa, lizentziak eta aholkularitza.
- **Enpresa-Zentroen Sare**
Udalak lan-espazioak eskaintzen ditu alokairuaren finantzaketa partzialarekin urte batzuetan, zure negozioa abiaraztea errazteko.

2. Babes ofizialarekin diren kreditu bankarioak

Laguntzak nahikoak ez badira, kreditu bankario tradizional bat eskatu dezakegu honako erakundeetan:

- Kutxabank
- BBVA
- Banco Santander
- Laboral Kutxa

Finantzaketan arrakasta izateko hau egin behar dugu

1. Hasteko, prestatu genuke negozio-plan argi bat gure helburuak, merkatuaren azterketa eta aurrekontuak azaltzen.
2. Gero, kudeatzaile edo aholkulari batekin kontsultatuko genuke, eta eskaerak prestatu eta aurkeztuko genituzke.
3. Eta azkenik hau dena aurkeztuko genuke epeak baino lehen, laguntza askok epe-muga zorrotzak dituztelako.

Gure taldean inork ez dauka esperientzia aurretik arlo honetan, egin genituen praktikak izan ezik. Hala ere, hori ez du gure ikasteko gogoia gutxitzen. Gainera, abilezi asko ditugu oso baliagarriak izango direnak. Hala nola:

Antolakuntza bikaina dugu, funtsezkoa dena guztia ondo aurrera eramateko. Era berean, arduratsuak gara eta denbora modu eraginkorrean kudeatzen dakigu.

Gizarte-abilezien aldetik, adibidez talde-lana, ez dugu inolako arazo handirik, ondo komunikatzen gara eta elkar entzuten dugu, eta behar bezala lankidetzan aritzen gara.

Azkenik, kreatibitate handia dugu adibidez, ferula berriak diseinatzeko eta arrazonamendu logiko ona, arazoak konpontzen eta etengabe hobetzen laguntzeko.
